



ingeniaritza
ELEKA
Linguistikoa

XUXEN QuarkXPress 7

Eskuliburua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Egileak:



ixa.si.ehu.es



ingeniaritza
ELEKA
Linguistikoa

www.eleka.net

Aurkibidea

1 Hitzaurrea.....	3
2 Eskakizunak.....	4
2.1 Sistema eragilea.....	4
2.2 Beharrezko softwarea.....	4
3 Instalazioa.....	5
4 Desinstalazioa.....	8
5 Erabilera.....	9

1 Hitzaurrea

Dokumentu hau XUXEN QuarkXPress 7 euskarazko ortografia zuzentzailearen eskuliburua da.

2 Eskakizunak

2.1 Sistema eragilea


Windows XP edo Windows Vista.

2.2 Beharrezko softwarea


QuarkXPress 7.x

3 Instalazioa

XUXEN QuarkXPress instalatzeko klik bikoitza egin instalatzailean. Instalazioa automatikoa da. Instalazio prozesuak hurrengo irudietan agertzen diren pantailetan zehar eramango gaitu.



Irudia 1: Instalatzailearen lehen pantaila. Sakatu "Aurrera" jarraitzeko



2 Irudia: Aukeratu instalazioa burutu nahi helburu karpeta eta "Instalatu" sakatu



3 Irudia: Instalazioa amaitu da. Sakatu "Amaitu" bukatzeko.


4 Desinstalazioa

XUXEN desinstalatzeko prozedura edozein Windows aplikazio desinstalatzeko jarraitu beharreko berbera da: nahikoa da **“kontrol-panel”**eko **“Gehitu edo kendu programak”** leihoan **“XUXEN QuarkXpress 7.x”** aukeratu eta desinstalatzailearen pausoak jarraitzea.

5 Erabilera


QuarkXPress 7 programak ez dakar euskara erabili daitezken hizkuntzen artean eta horregatik, XUXEN zuzentzailea suediar hizkuntzari lotu zaio. Hori dela eta, euskarazko testu bat zuzentzeko “suedieraz” dagoela adierazi behar zaio.

Horretarako, “karaktereen estilo orria” (“*Hoja de estilo de caracteres*”) editatu behar dugu eta han “*Sueco*” hizkuntza ezarri. Lehendabizi, “*Edición->Hojas de Estilo*” menura joango gara.




4 Irudia: Ditugun estilo orriak editatuko ditugu

Dauden estilo orriak aterako zaizkigu. Guk, erabiltzen dugun karaktereen estilo orria editatuko dugu.




5 Irudia: Karaktereen estilo orria aukeratu eta "Editar" botoia sakatuko dugu

Ateratzen diren aukeren artean, "**Idioma**" atala egongo da. Hor, dagoen hizkuntza aldatu eta "**Sueco**" ipiniko dugu.




6 Irudia: "Idioma" atalean, "Español"-en ordean, "Sueco" aukeratuko dugu.




7 Irudia : Zerrendatik, "Sueco" aukeratuko dugu

Hau egin eta gero, prest gaude testuak zuzentzeko. Horretarako "**Utilidades->Verificar Ortografía**" menura joango gara eta hango aukeretako bat hartu, adibidez, "**Selección**" aukeratuko daukagun testu zatia zuzentzeko.




11 Irudia : Testua zuzentzeko, "Utilidades->Verificar ortografía" menua erabili behar da

Testua zuzendu eta gero, zuzenketaren emaitza-leiho bat azalduko zaigu, zuzendu diren hitz-kopuruarekin, hitz ezberdinen kopuruarekin eta gaizki dauden hitzen kopuruarekin. **“OK”** sakatu behar da okertzat ematen diren hitzen zerrenda eta beren zuzenketa-proposamenak lortzeko.



8 Irudia : Zuzenketaren emaitza.
"OK" sakatu jarraitzeko



9 Irudia : "Kaizo" hitza okertzat jo du eta zuzenketa proposamenak ematen ditu